# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 1295

25/2011 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzeko Dekretua aldatzeko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko urriaren 2ko Agindua inpugnatzeko prozedura laburtuaren bidezko 1521/09 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, 2010-11-15ean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiak erabaki du onestea Luis Miguel Juan Mesanza-k aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. 2009ko urriaren 2ko agindu horren bitartez, ezetsi egiten da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2009ko martxoaren 16ko Ebazpenaren aurkako gora jotzeko Errekurtsoa; izan ere, ebazpen horren bitartez, argitara ematen baita, batetik, Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrendan egindako aldaketek –otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuak sortutakoek– eragiten dieten langileak zehazteko prozesuaren emaitza; eta, bestetik, otsailaren 13ko 25/2001 Dekretuko –abenduaren 26ko 368/2001 Dekretuaz aldatutako– aurreikuspenak aplikatu eta gero plaza gabe geratu ziren langileen zerrenda.

2009ko urriaren 2ko aipatu Agindua da auzigaia, eta epai horrek errebokatu egiten du, eta «aitortu egiten da errekurtso-egileak lehendik zuen lanpostua betetzen jarraitzeko eskubidea; adina dela-eta, ezarritako HEtik salbuetsiaz».

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko azaroaren 23ko Aginduak xedatzen du ezen, aipatu epaia bete dadila zehazturik dagoen legez.

Otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuaren bitartez, onartu egiten da Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda; bada, dekretu horrek kendu egin zuen Gasteizko A02 Berritzaguneko ondoko lanpostua: errekurritutako egitateen aurretik, Luis Miguel Juan Mesanza-k betetzen duena, eta hori halaxe jasotzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen 2007ko abenduaren 11ko Ebazpenean, zeinarekin argitara ematen baita Hezkuntza Laguntzeko Zerbitzuetako ISEI (ISEI, Berritzeguneak

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 1295

DECRETO 25/2011, de 22 de febrero, de modificación del Decreto por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes).

En el recurso contencioso-administrativo n.º 1521/09, seguido por el procedimiento abreviado, en el que se impugna la Orden de 2 de octubre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que desestima el recurso de alzada contra la Resolución de 16 de marzo de 2009 el Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por el que se hacía público el resultado del proceso de determinación de personas afectadas por las modificaciones efectuadas en la relación de puestos de trabajo de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes) por el Decreto 41/2009, de 17 de febrero, así como la relación de personas que quedaron sin plaza por aplicación de las previsiones del Decreto 25/2001, de 13 de febrero, modificado por el Decreto 368/2001, de 26 de diciembre, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz, con fecha de 15 de noviembre de 2010, ha acordado estimar recurso contencioso-administrativo interpuesto por don Luis Miguel Juan Mesanza.

Dicha sentencia, revoca la citada Orden de 2 de octubre de 2009 objeto del pleito, «reconociendo el derecho del recurrente a seguir ocupando el puesto de trabajo que venía ocupando con exención del cumplimiento del PL establecido por razón de la edad».

La Orden de 23 de noviembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, ordena se cumpla en sus propios términos la expresada sentencia.

El Decreto 41/2009, de 17 de febrero, por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes) venía a suprimir, dentro del Berritzegune A02 de Vitoria-Gasteiz el puesto de trabajo que venía ocupando con anterioridad a los hechos recurridos don Luis Miguel Juan Mesanza según recoge la resolución de 11 de diciembre de 2007, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace pública la adscripción definitiva a los puestos de trabajo de los Servicios de Apo-

eta IIHII) lanpostuetarako behin betiko adskripzioa. Aipatu lanpostu, otsailaren 13ko 26/2001 Dekretuaz sortu zen (2001-02-22ko EHAA).

Aipatu epaia zehaztuta dagoen legez betetzeko, delako lanpostu berrezarri egin behar da, non-eta otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuaz aldatutako Lanpostu Zerrenda berrian.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak proposaturik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2011ko otsailaren 22an, bilkurak eztabaidatu eta onartu ostean, hauxe,

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuaren bitartez, onartu egiten zen Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda. Bada, zerrenda hori aldatu egiten da, eta Gasteizko A02 Berritzaguneko ondoko lanpostua –kentzeko plaza legez– sartzen da: errekurritutako egitateen aurretik Luis Miguel Juan Mesanza-k betetzen duena, eta hori halaxe jasotzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen 2007ko abenduaren 11ko Ebazpenean, zeinarekin argitara ematen baita Hezkuntza Laguntzeko Zerbitzuetako (ISEI, Berritzeguneak eta IIHII) lanpostuetarako behin betiko adskripzioa. Aipatu lanpostu, otsailaren 13ko 26/2001 Dekretuaz sortu zen (2001-02-22ko EHAA).

Berritzegunea: A02 - Egoitza: Vitoria-Gasteiz.

yo a la Educación (Berritzegunes, IVEI y CEIDAs), plaza que fue creada a través del Decreto 26/2001, de 13 de febrero (BOPV de 22-02-2001).

La ejecución de la citada sentencia en sus propios términos requiere, por lo tanto, reponer la citada plaza en la nueva Relación de Puestos de Trabajo, modificando el Decreto 41/2009, de 17 de febrero.

En su virtud, en cumplimiento de la sentencia dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de febrero de 2011,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Modificar la relación de puestos de trabajo de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes), aprobada mediante Decreto 41/2009, de 17 de febrero, incluyendo en la misma, como plaza a extinguir, dentro del Berritzegune A02 de Vitoria-Gasteiz el puesto de trabajo que venía ocupando con anterioridad a los hechos recurridos don Luis Miguel Juan Mesanza según recoge la Resolución de 11 de diciembre de 2007, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace pública la adscripción definitiva a los puestos de trabajo de los Servicios de Apoyo a la Educación (Berritzegunes, IVEI y CEIDAs), plaza que fue creada a través del Decreto 26/2001, de 13 de febrero (BOPV de 22-02-2001):

Berritzegune: A02 - Sede: Vitoria-Gasteiz

| Plaza | Hizkuntza-eskakizuna: | Titulazioa | Esperientzia | Taldea |
|---|---|---|---|---|
| Programako aholkularia: Dibertsitatea * | 2.a, data igarota | Goi-mailako titulazioa | | A/B |

*Kentzeko den plaza.

| *Plaza* | *Perfil lingüístico* | *Titulación* | *Experiencia* | *Grupo* |
|---|---|---|---|---|
| *Asesor de Programa: Diversidad ** | *2 vencido* | *Titulación superior* | | *A/B* |

**Plaza declarada a extinguir*

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2008ko irailaren 1etik harako eragina izango du.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 22an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día 1 de septiembre de 2008.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.